



GIPUZKOAKO SASKIBALOI FEDERAZIOA

**PROBINTZIAKO LEHIAKETEN ARAU OROKORRAK ETA LEHIAKETA  
OINARRIAK**

**(INFANTIL TXIKIAK, INFANTIL HANDIAK, KADETEAK, JUNIORRAK ETA  
SENIORRAK)**

**2018-19 DENBORALDIA**

# Aurkibidea

1. Jarduketa-eremu	3. orria
1.1.– 1. Artikulua	
2. Xedea	3. orria
2.1.– 2. Artikulua	
3. Geroagoko garapenak eta komunikazioak	3. orria
3.1.– 3. Artikulua	
4. Kategoriak, adinak eta ibilbideak	4. orria
4.1.– 4. Artikulua	
4.2.– 5. Artikulua	
5. Lehiaketa sistemak	6. orria
5.1.– 6. Artikulua	
6. Egutegiaren zozketa	6. orria
6.1.– 7. Artikulua	
7. Talde eta klub partaideak	8. orria
7.1.– 8. Artikulua	
7.1.1. Federazioko kide izatea	
7.1.2. Uko-egiteak	
7.1.3. Plaza hutsak	
7.1.4. Taldeen izen-ematea	
8. Lizenziak	9. orria
8.1.– 9. Artikulua	
8.1.1. Lizenzia motak	
8.1.2. Lizenziak aurkeztea	
9. Jokaalariak	10. orria
9.1.– 10. Artikulua	
9.1.1. Jokalari-kopurua. Altak eta bajak.	
9.1.2. Lizenziak tramitatzea eta epeak	
9.1.3. Jokalariak igotzea	
10. Teknikariak	10. orria
11. Ordezkariek eta laguntzaileak	11. orria
11.1. 12. Artikulua	
12. Epaileak: Arbitroak, mahaiko laguntzaileak eta arbitro teknikariak	11. orria
12.1. 13. Artikulua	
12.1.1. Kategoriak eta lizenzia mota	
12.1.2. Etxeko taldearen mahaiko laguntzailea	
12.1.3. Arbitroen eta mahaiko laguntzaileen betebeharrak eta prozedurak	
12.1.3.1. Kronometroak, markagailuak eta denbora	
12.1.3.2. Jai hartzeko eskaera	
12.1.3.3. Izendapenak	
12.1.3.4. Tarifak eta nork ordainduko dituen	
12.1.3.5. Emaizak jakinaraztea	
12.1.3.6. Ordainagiriak	
12.1.4. Epaileak ez agertzea	
12.1.5. Epaile-talde estandarra eta arbitraje-eskaerak	
13. -14. Artikulua: Jokalekuak	14. orria
14. -15. Artikulua: Partidak bertan behera uztea	14. orria
15. -16. Artikulua: Talde teknikoak	15. orria
16. -17. Artikulua: Taldeen janzkera	15. orria
17. -18. Artikulua: Partiden datak eta ordutegiak	15. orria
18. -19. Artikulua: Partiden programazioa aldatzea	16. orria

19. -20. Artikulua: Gomendioak	<i>16. orria</i>
20. -21. Artikulua: Arbitrajeak ordaintzea	<i>16. orria</i>
21. -22. Artikulua: Diziplina-araubidea	<i>17. orria</i>
22. Lehenengo eranskina	<i>18. orria</i>
23. Bigarren eranskina	<i>19. orria</i>
24. Hirugarren eranskina	<i>22. orria</i>
25. Laugarren	<i>23. orria</i>
26. Bosgarren eranskina	<i>25. orria</i>

## ARAU OROKORRAK

### JARDUKETA-EREMUA

#### 1. Artikulua:

Arau orokor hauek arautzen dituzte Gipuzkoako Saskibalo Federazioak (aurrerantzean GSF) antolaturiko lehiaketa ofizialak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) GSFren laguntza teknikoarekin antolatzen dituenak, infantil txiki kategoriatik hasita, bera barne.

Lehiaketa-oinarri hauek garatu ahal izango dira oinarri zehatzagoen bidez, lehiaketa sistemen bidez, zirkularren bidez edo GSFk egoki irizten dion beste edozein dokumentazioren bidez.

GSFren Zuzendaritza Batzordeak ahalmena izango du, eskumena duen eremuan, arau orokor hauek eta gero argitara litezkeen espezifikoagoak interpretatzeko eta koordinatzeko, betiere saskibaloiairen eta lehiaketen mesedetan.

### XEDEA

#### 2. Artikulua:

Arau orokor hauek, hein batean, Euskadiko Saskibalo Federazioaren (aurrerantzean ESF) Araudi Orokorraren garapena dira, eta GSFk eta GFAk antolaturiko lehiaketetan aplikatuko diren aldaketak jasotzen dituzte batez ere. Araudi orokor honetan jaso gabeko auzietarako GSFren Araudi Orokorra erabiliko da, edo goragoko araudiak, hala badagokie.

GFArekin adostu dugu **GSF**ren araudi orokor hau erabiltzea GFAk infantil txiki kategoriatik aurrera (bera barne) antolatzen dituen lehiaketetan, eta araudi honetan edo lehiaketa bakoitzaren oinarri espezifikoetan jaso gabeko auziak ebazteko Euskadiko, Espainiako edo Nazioarteko federazioen araudiak erabiliko dira.

Ondoko dokumentu hauek osatzen dute eranskina:

- Federazioaren tarifak 2018-2019 denboraldirako.
- GSFk eta GFAk antolaturiko lehiaketen oinarri espezifikoak, lehiaketa itxiak izanik talde kopuru jakina dutelako lehiaketa sistema zehaztea ahalbidetzen dutenak, hain zuzen ere.
- ESFren Diziiplina Araudiaren egokitzapen laburtua, parte-hartze ibilbiderako garapen espezifikoarekin batera.
- Infantil, kadete eta junior kategorietako lurralde selekzioen lan plangintza.
- Epailletza tarifak eta epaileak izendatzeko irizpide orokorrak.
- Gazte Kirol Plana (PDJ) akordioa, GFaren eta GSFren artekoa. Akordio hori berri ez bada uztailean izaten den Ohiko Batzar Nagusirako, aurreko denboraldiko testu bera izango da, eta denboraldi horretako izenpetzen denean hura sartuko da indarrean.
- Errendimenduko saskibalo txikiko araudia (5. eranskina).

### GEROAGOKO GARAPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

#### 3. Artikulua:

Lehiaketa-arau orokor hauek gerora garatu eta zehaztu ahal izango dira. Alde batetik, lehiaketa irekien lehiaketa sistemak izena emateko epea amaitzen denean diseinatuko dira. Era berean, lurralde selekzioen plangintzaren berri emango da behin zehazten direnean.

GSFren Diziiplina Batzordearen jakinarazpenak posta elektronikoki ofizialaren bidez helaraziko dira kirol elkarte bakoitzaren eta epaileen helbide elektronikora, GSFren web aplikazioaren bidez.

Gure webgunearen hainbat gunetan (egutegiak, jardunaldiak...) epailea izendatua duten edo ez duten arbitrajeen (epaileak eta mahaiko laguntzaileak) inguruko informazio guztia dago eskuragarri, eta bereziki klubenean eta arbitroen gunean.

Partida bakoitzeko esku-hartzaileek egiaztatu beharko dute zer epaile-talde izendatu zaien.

## KATEGORIAK, ADINAK ETA IBILBIDEAK

### 4. Artikulua:

ESFren 2018-2019 denboraldiko Araudi Orokorrean eta GFaren Eskola Kiroleko Programan ondoko kategoriak ezartzen dira:

- **Benjaminak:** 2009an eta 2010ean jaioak.
- **Alebinak edo minibasketa:** 2007an eta 2008an jaioak.
- **Alebinak edo errendimenduko minibasketa:** 2007an jaioak.
- **Errendimenduko infantilak:** 2005ean eta 2006an jaioak.
- **Infantilak Txikiak:** 2006an jaioak.
- **Infantilak Handiak:** 2005ean jaioak.
- **Kadeteak:** 2003an eta 2004an jaioak.
- **Juniorrak:** 2001ean eta 2002an jaioak
- **Seniorrak:** 2000an eta aurreko urteetan jaioak.

Arau orokor eta lehiaketa oinarri hauek erabiliko dira hasi infantil txikitik eta seniorretaraino, biak barne.

Infantil txiki kategorian jokalarien % 25 (gehienez 3) izan ahalko dira 2005ean jaioak.

Parte-hartzeko infantil eta kadete kategorietan taldeak mixtoak izan daitezke, betiere GSFko Zuzendaritza Batzordeak aurretik baimendu badu. Talde bat sexu bereko parte-hartzaileekin osatzeko aukerarik ez dagoenean, jokalarien parte-hartzea errazteko asmoz egin da salbuespen hori. Talde hauek soilik gizonetzkoen lehiaketetan parte hartuko dute.

Kategoria guztietan egongo dira errendimendu eta parte-hartze ibilbideak, senior kategorian izan ezik. Errendimenduko taldetzat hartuko dira ondorio guztietarako:

- Euskadiko Ligan parte hartzen duten kadete eta junior kategorietako taldeak.
- Gipuzkoako Errendimendu Txapelketan parte hartzen duten kadete eta juniorren taldeak.
- Infantilak eta alebinen errendimenduko lehiaketetan parte hartzen duten taldeak.

### 5. Artikulua: lehiaketak

GSFk eta GFAk, GSFren laguntza teknikoarekin, lehiaketa ofizial hauek antolatuko ditu denboraldi honetan:

- Gipuzkoako Txapelketa
- Euskal Ligetako Taldeen Torneoa

Lehiaketa bakoitzean multzoak edo mailak bereizi ahal izango dira. Parte-hartzeko eta errendimenduko lehiaketak itxiak izango dira. Beraz, kategoria bereko jokalaria izan baina beheagoko mailatan izena emanda daudenek jokatu ahal izango dute. Jokalaria ezingo dira igo lehiaketa bereko multzo desberdinetan ari diren talde batetik bestera.

Laburpen taula batean jaso ditugu kategoriak, azpikategoriak eta mailak.

- Infantil txiki kategoriako jokalariek batek infantil handi kategoriako talde batean joki dezake, baina parte-hartzean bai errendimenduan, baina betiere talde bakar batean (ezingo du jokatu asteburu batean parte-hartzeko infantil handiekin eta hurrengoan errendimenduko infantil handiekin).
- Infantil handi kategoriako jokalariek batek errendimenduko infantil talde batekin eta kadete kategoriako beste talde batekin jokatu ahal izango du, dela parte-hartzekoa edo dela errendimendukoa, baina soilik talde batean.
- Errendimenduko infantil kategoriako jokalariek batek kadete mailako talde batekin jokatu ahal izango du, dela parte-hartzekoa edo dela errendimendukoa, baina soilik bietako batean, eta ezingo du euskal ligan jokatu.
- Parte-hartzeko kadete kategoriako jokalariek batek errendimenduko kadete talde batekin jokatu ahal izango du, baina soilik maila batean, eta parte-hartzeko edo errendimenduko junior talde batean, edo euskal ligan, baldin eta federatu lizentziarik izanez gero, baina soilik hiru ibilbideak dituen talde batean.
- Errendimenduko kadete kategoriako jokalariek batek euskal ligako kadete talde batean joki dezake, baldin eta federatu lizentziarik badu, eta parte-hartzeko edo errendimenduko junior talde batean, edo euskal ligan, baldin eta federatu lizentziarik izanez gero, baina soilik hiru ibilbideak dituen talde batean.
- Euskal ligako jokalariek kadete batek parte-hartzeko edo errendimenduko junior talde batean joki dezake, edo euskal ligan, baina soilik hiru ibilbideak dituen talde batean.
- Parte-hartzeko junior jokalariek batek errendimenduko junior talde batean joki dezake, edo euskal ligako junior talde batean eta edozein mailatako senior talde batean, baina talde bakar batean.
- Errendimenduko junior jokalariek batek euskal ligako junior talde batean joki dezake, eta edozein mailatako senior talde batean, baina talde bakar batean.
- Euskal ligako jokalariek junior batek edozein mailatako senior talde batean joki dezake, baina talde bakar batean.
- Jokalariek senior batek goragoko senior maila batean joki dezake, baina soilik talde bakar batean.

Talde batek arau hau betetzen ez badu, OKERREKO JOKALARI ZERRENDATzat hartuko da.

<b>Kategoria</b>	<b>Azpikategoria edo maila</b>	<b>Ibilbidea</b>
Infantil-aurrea (giz. + emak.)	Infantil Txikiak (giz. + emak.)	Parte-hartzea
Infantilak (giz. + emak.)	Infantil Handiak (giz. + emak.)	Parte-hartzea
		Errendimendua
Kadeteak (giz. + emak.)	Kadeteak (giz. + emak.)	Parte-hartzea
		Errendimendua
		Euskal Liga
Juniorrak (giz. + emak.)	Juniorrak (giz. + emak.)	Parte hartzea
		Errendimendua
		Euskal Liga
Senior gizonezkoak	1.a	
	2.a	
	3.a	
	Lehiaketak ESF + Espainiako SF	
Senior emakumezkoak	1.a eta 2.a Probintziala	
	Lehiaketak ESF + Espainiako SF	

GSFantolatuko ditu kategoria hauetako lehiaketak:

- Senior gizonetzkoak eta senior emakumezkoak.
- Junior gizonetzkoak eta junior emakumezkoak.
- Kadete gizonetzkoak eta kadete emakumezkoak

GFAk antolatuko ditu lehiaketa hauek, GSFren laguntza teknikoarekin:

- Infantil Handi gizonetzkoak eta emakumezkoak
- Infantil Txiki gizonetzkoak eta emakumezkoak
- Alebin gizonetzkoak eta emakumezkoak
- Benjamin gizonetzkoak eta emakumezkoak

Infantil txikitik juniorretara bitarteko lehiaketa guztiak errendimenduko eta parte-hartzeko ibilbideetan antolatuko dira, GFArekin adostuta.

Lehiaketa oinarri hauetan ez daude jasota alebin eta benjamin kategorietako parte-hartze eta errendimenduko lehiaketak. Lehiaketa oinarri hauek irailan aurkeztuko dira, behin Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuarekin adosten direnean.

## 1- Laburpen taula

Kategoria	Ibilbidea	Izena	Izena emateko epea	Lizentzia
Errendimenduko minibasket	Errendimendua	Gipuzkoako txapelketa	Irailak 30	Eskolartekoa
Infantil txikiak (gizon.+emak.)	Parte-hartzea	Gipuzkoako Txapelketa	Irailak 15	Eskolartekoa
Infantilak Handiak (gizon.+emak.)	Parte-hartzea	Gipuzkoako Txapelketa	Irailak 15	Eskolartekoa
Infantilak Handiak (gizon.+emak.)	Errendimendua	Gipuzkoako Txapelketa	Irailak 15	Eskolartekoa
Kadeteak (gizon.+emak.)	Errendimendua	Gipuzkoako Txapelketa	Uztailak 5	Eskolartekoa
Kadeteak (gizon.+emak.)	Parte-hartzea	Gipuzkoako Txapelketa	Irailak 15	Eskolartekoa
Juniorrak (gizon.+emak.)	Errendimendua	Gipuzkoako Txapelketa	Uztailak 5	Federatua
Juniorrak (gizon.+emak.)	Parte-hartzea	Gipuzkoako Txapelketa	Irailak 15	Federatua
Senior gizonetzkoak		1. mailako Gipuzkoako Txapelketa	Uztailak 5	Federatua
Senior gizonetzkoak		2. mailako Gipuzkoako Txapelketa	Uztailak 5	Federatua
Senior gizonetzkoak		3. mailako Gipuzkoako Txapelketa	Irailak 15	Federatua
Senior emakumezkoak		1. mailako Gipuzkoako Txapelketa	Uztailak 5	Federatua
Senior emakumezkoak		2. mailako Gipuzkoako Txapelketa	Irailak 15	Federatua

## LEHIAKETA SISTEMAK

### 6. Artikulua:

Lehiaketa bakoitzeko oinarrietan zehaztuko da lehiaketa bakoitza zer sistemarekin jokatu den. Oinarri hauek betiere Gipuzkoako eta Euskadiko saskibalo federazioen Araudi Orokorrek eta goragokoek ezartzen dutena beteko dute, oinarri hauetan berariaz aipatzen ez diren gaietan izan ezik.

Izen-emate irekiko lehiaketetan, behin partaide kopurua jakiten denean ezarriko da lehiaketa sistema. Lehiaketa bakoitzerako zozketa egiten den bileran onartuko edo aldatuko dira oinarri hauek.

Senior gizonezkoen eta emakumezkoen lehen mailako azken fasean (Lauko Finala) parte hartu ahal izango dute goragoko kategoriara igo ezin diren taldeek.

### **EGUTEGIEN ZOZKETA**

- 1. eta 2. mailako gizonezko seniorrak, juniorrak eta errendimenduko kadeteak, uztailearen 11ko Batzar Orokorrean zehar.
- Gainerako lehiaketak, 2018ko irailaren 26an egingo den Batzar Orokorraren jarraipenean.

## **7. Artikulua:**

### **ARAUDIEI EGINIKO ZEHAZTASUNAK**

GSFk eta GFAk antolaturiko lehiaketak arautzeko Nazioarteko Saskibalo Federazioaren araudi ofizialak erabiliko dira, ondoko gai zehaztetan izan ezik:

- **6,75eko marra:**

2018-2019 denboraldirako, FIBAren 2010eko araudia betez, hiru puntuko lerroa 6'75era egongo da kategoria guztietako partidetan.

- **24 segundoen gailua:**

- Emakumezko eta gizonezko seniorren lehen mailan, bi laguntzaile joaten badira eta 24 segundoen gailua baldin badago, nahitaez erabili beharko da. Gailurik ez badago, behin 16 segundo iragotzen direnean, azken 8 segundoak ozen kontatuko ditu kronometroaz arduratzen den laguntzaileak.

- Infantil Txiki eta Infantil Handi lehiaketetan, bai parte-hartzean bai errendimendukoan, Pasarela araudia erabiliko da.

- Mini, Infantil Txiki eta Infantil Handi parte-hartze lehiaketetan zonako defentsarik ezingo da egin, eta arauz kontrako defentsatzat hartuko da jokalaria bat 5 segundo baino gehiago eremu murriztuan (zona) egoten bada defentsan ari den jokalaria han egon gabe.

- Arauz kontrako defentsa bat jaurtiketa libre batekin eta baloi jabetzarekin zigortuko da (aktan jasoko da, hartarako prestatuturiko lekuan. Falta teknikoak EZ dira metagarriak).

- Infantil Txiki kategoriako eta minibasketeko lehiaketetan baloi txikia erabiliko da..

- GSFko seniorretan eta **juniorretan** baloia larruzkoa izango da, **Baden** markakoa nahitaez.

- Gainerako kategorietan, GSBk/GFAk homologaturiko baloiarekin jokatu da.

- Senior eta errendimenduko kategorietan baloia larruzkoa izango da nahitaez, Mini kategorian izan ezik.

- Infantilen Txiki eta Handien lehiaketetan erlojua kasu hauetan soilik geldituko da:

- o Hutsarteetan.
- o Jaurtiketa libreetan.
- o Laurden bakoitzaren azken bi minutuetan eta luzapenetan, halakorik egonez gero.
- o Epaileak beharrezko irizten dion egoera guztietan.

- Infantil Txiki eta Infantil Handi lehiaketetan, aldaketen arauak egoki aplikatu daitezken, 8-12 jokalaria aurkeztu behar dira. Kategoria hauetako parte-hartze lehiaketetan, Aldundian izena emanda 9 jokalaria edo gutxiago dituzten taldeek baimena izango



dute 6 edo 7 jokalarirekin jokatzeko. Kasu horretan, partidako aktan inskribatzen den jokalarietako bakoitzak gutxienez bi laurden jokatu beharko ditu lehenengo hiru laurdenetan.

- Errendimenduko Minibasket lehiaketetan 5. ERANSKINEAN jasotako araudia erabiliko da (ikus oinarri hauen amaiera)

- Parte-hartzeko Infanti Txiki eta Infantil Handi lehiaketetan, talde batek 50 punturen aldea lortzen duenean, emaitza hori jasoko da aktan eta utzi egingo zaio puntuak kontatzeari.

- Pasibotasunaren aurkako araua aplikatuko da 24"ko erlojurik gabe jokatzeko diren lehiaketetan. Epailak ikusten badu baloia duen taldea ez dela ahalegintzen baloia saskiratzen, eskuekin 8 adieraziko du eta ozen kontatuko ditu 8 segundoak, eta denbora hori igaro baino lehen jaurti egin beharko da. Jaurtiketak egiten ez bada, arau-urratzea izango da eta baloia talde aurkariarentzat izango da. Jaurtiketa egiten bada, uztaia ukitu beharko da, bestela arau-urratzea izango da.

- Eskola kiroleko lehiaketarako diziplina araudia GSFren eta Euskadiko Federazioaren araudietan ezarritakoa izango da, eta kontuan hartuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolaturiko eskola kiroleko programa osatzen duten jarduerari aplikatzen zaien araudia: 14/1998 kirolaren legea, uztailaren 23 391/2013 dekretua, eskola kiroleko txapelketen diziplina araubideari buruzkoa, eta eskola kirolari buruzko 2008ko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 22. artikulua.

## TALDE ETA KLUB PARTAIDEAK

### 8. Artikulua:

Izena behar bezala eman duten federatutako taldeek eta GSFk ezarritako arau eta baldintza guztiak bete dituztenek hartuko dute parte dagokien mailan eta lehiaketan.

Lurreko lehiaketa guztietan, klub bakoitzak nahi beste talde aurkez ditzake, senior gizonezkoen eta emakumezkoen lehen mailan izan ezik. Bi kasu horietan gehienez talde bat egon ahal izango da klub bakoitzeko.

#### 8.1.- FEDERAZIOKO KIDE IZATEA

Talde partaide guztiak, bai eskolarteko lehiaketetakoak bai federazio lizentzia behar den lehiaketetakoak, Eusko Jaurlaritzan erregistratuta dagoen eta Gipuzkoako Saskibalo Federazioko kide den kirol klub edo kirol talde batean izena emanda egongo dira, 2010eko ekainaren 22ko Dekretu berriak ezartzen duenaren arabera.

#### 8.2.- UKO-EGITEAK

Lehiaketa bateko sailkapenean hurrengo denboraldian igotzeko eskubidea lortu duen talde orok eskubide horri uko egin ahal izango dio, honela:

- 1.- GSFn idatziz aurkeztu beharko da uko egiteko eskaera, taldea kide den elkarteko lehendakariak izenpetuta.
- 2.- Ekainaren 30eko 19:00ak baino lehen egiten bazaio uko txapelketari, ontzat joko da. Kasu horretan, uko egiten duen taldeak eskubidea izango luke aurreko denboraldian jokatu duen lehiaketa berean jokatzeko.
- 3.- Aipatutako epea baino geroago aurkeztuko balitz uko-egitea, epez kanpokotzat joko da. Beraz, GSFk antolatzen duen azken lehiaketan eman beharko du izena uko egiten duen taldeak, eta 50 euroko kanon bat aplikatuko zaio.
- 4.- Maila bat goragoko talderen batek jokatzeari uko egin diola-eta igotzeko sailkatu ez, baina igotzeko aukera duten taldeek hamabost eguneko epea dute jokatzeari uko egiteko, une horretan duten maila galdu gabe.

Ez zaie uko-egitea baimenduko lehiaketa sistemen barneko igoera faseei, euskal ligarako igoerei, finalerdiei, azken kanporaketei eta abarri, GSFren Batzar Orokorrean onartutako lehiaketa sistemen barnean daudenei.

#### 8.3.- PLAZA HUTSAK

Lehiaketa itxietan plazaren bat geratzen bada hutsik, hura betetzeko eskaera eta inskripzioa lehiaketa haietarako ezarritako epeen barruan egiten duten taldeek beteko dute, hurrenkera honetan:

- 1.- Maila bat beheragoko lehiaketan jokatzeko duten taldeak, eta igo ez direnak, sailkapenaren hurrenkeran.
- 2.- Jaitsitako taldeak.
- 3.- Maila bat beheragoko lehiaketara igo diren taldeak.
- 4.- Maila bat beheragoko lehiaketetan plaza duten taldeak, 1., 2. eta 3. irizpideei jarraituta.
- 5.- Kategorian izena eman berriak diren taldeak.

Eskubide bera duten taldeek eskatzen badute, sailkapeneko hurrenkera hartuko da aintzat. Hala ere plaza hutsak geratzen badira, hamar eguneko epea zabalduko da izena emateko eta GSFk erabakiko du nork beteko dituen, bere irizpideen arabera, betiere aintzat harturik kirol merituak, geografia eta interes orokorra.

#### **8.4.- TALDEEN IZEN-EMATEA**

2018-2019 denboraldirako izena emateko azken egunak hauek izango dira:

- Infantil Txikiak, Infantil Handiak eta parte hartzeko kadeteak: **2018ko irailaren 15a**
- 1. eta 2. mailako Senior Gizonezkoak, 1. mailako Senior Emakumezkoak, Juniorrak eta Errendimenduko Kadeteak: **2018ko uztailearen 5a**.
- Errendimenduko infantilen maila irekiak: **2018ko irailaren 15a**
- Juniorren eta seniorren maila irekiak: **2018ko irailaren 15a**

IntraFeb-en edo Aldundiko Programan sartutako datuekin parekatuz taldearen izena emateko datuetan aldaketak badaude, aldaketa bakoitzaren truke 10 € ordaindu beharko dira. Parte-hartze ibilbideko taldeen datuak aldatzeko 5 €-ko kanona ordaindu beharko da, **lehiaketa hasi baino hilabete lehenago egiten diren aldaketen kasuan izan ezik**.

Izena ematean partidak noiz jokatuko dituzten adierazten ez duten klubei igande eguerdiko 12etan ezarriko zaizkie igande edo jaiegunetan, eta jaiegunea ez bada arratsaldeko 6etan.

Taldearen izena ematean adierazitakoarekiko egiten diren data, jokaleku eta ordu aldaketak aurkeztu eta hilabeteren buruan sartuko dira indarrean. (19 BC artikulua).

### **LIZENTZIAK.**

#### **9. Artikulua:**

##### **9.1.- LIZENTZIA MOTAK**

Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioak antolatzen dituen maila guztietako Senior eta Junior lehiaketetan, eta Kadeteen Euskadiko Ligan, Federazioaren lizentzia beharko da, eta ESFren Araudi Orokorrek ezartzen duena beteko da, Gipuzkoako Federazioak izapidetua eta Euskadikoak emana.

Kadeteen eta infantilen gainerako lehiaketetarako lizentzia Gipuzkoako Foru Aldundiak emango du. Lurrelde mailako kadeteen lehiaketetan federazioaren lizentzia egiteko aukera dago, eta hartara, jokalariek horiek Euskadiko Ligako taldeetan jokatzeko aukera izango dute.

GFAk eta GSFk antolaturiko lurrelde mailako lehiaketetan jokatzeko federazio lizentziak eta eskolartekoak baliokidetzat hartuko dira ondorio guztietarako. Diziplina araudiari dagokionez, lehiaketaren izaera hartuko da kontuan eta ez lizentzia mota.

Euskadi mailako lehiaketetan (juniorren eta kadeteen Euskadiko ligak) jokatzeko federazio lizentzia beharko da. Beraz, lehiaketa horietan ari behar duten jokalariek federazio lizentzia eduki beharko dute.

Epailen estamentuari dagokionez, epaileek federazio lizentzia edukiko dute, epaitzen duten lehiaketak edozein direla ere (eskolartekoak edo federatuak). GKP epaileek alta eman eta lizentzia eduki beharko dute, **eskolarteko edo federatua bere**

**klubarekin.**

## **9.2.- LIZENTZIAK AURKEZTEA**

Partidetan, talde guztiek aurkeztu beharko dute dagokien triptikoa, bai eta GSFk eska dezakeen dokumentazio osagarria ere. Nahitaez aurkeztu beharko dira Federazioaren lizentzia eta Foru Aldundiaren lizentzia behar bezala izenpetuta, titularraren nortasuna eta kategoria egiaztatzeko.

Partidaren batean taldekideren baten lizentzia, taldearen triptikoa eta gerora talderatu diren jokalarien alta-agiriak aurkezten ez badira, zigor arina ezarriko da.

Jokalariren batek ordu berean, edo ordutegi bertsuan bi partida jokatuz gero, ez da zigorrik ipiniko lizentzia ez aurkezteagatik, baldin eta idatziz informatzen bada GSFan, eta NAN originala aurkezten bada partidari.

GSFk eta GFAk eskatzen zaizkien beste triptiko emango dituzte.

## **JOKALARIAK**

### **10. Artikulua:**

#### **10.1.- JOKALARI-KOPURUA. ALTAK ETA BAJA.**

Denboraldiaren hasieran, GSFk antolatzen dituen lehiaketetako taldeek 8 jokalarik inskribatu beharko dituzte, entrenatzaile tituludun bat, eta klub bakoitzeko gutxienez ordezkarik bat.

Errendimenduko, parte hartzeko eta kategoria senior probintzialeko lehiaketetan aritzen diren taldeek, GFAk edo GSFk antolaturiko lehiaketak izan edo ez, gutxienez 8 jokalarik inskribatu beharko dituzte, **eta gehienez 15**, eta entrenatzaile tituludun bat. **Partidetan** (errendimenduko minibasketa barne), gehienez 12 jokalarik sartu ahal izango dira aktan.

Euskal Ligarako sailkatzen diren taldeek 12 lizentzia soilik eduki ahal izango dituztela.

Denboraldi berean soilik jokalarik bat aldatu ahal izango da taldez, kategoria bereko edo baxuagoko beste talde batera; horretarako, ezarritako epeen barruan egin beharko da eta jatorrizko taldean partida ofizialik jokatu gabe egon behar du denboraldi horretan.

ESFren eta GSFren Araudi Orokorra erabiliko da errendimenduko lehiaketan hauetan, altak eta bajak, jokalarien adinak eta beste edozein gai arautzeko.

#### **10.2.- LIZENTZIEN TRAMITAZIOA ETA EPEAK**

Federazio honek antolatutako lehiaketa bakar batean ere ez dira lizentzien izapideak egingo, baldin eta 4 jardunaldi baino gutxiago falta badira horien ohiko fasea amaitzeko.

Lizentzien izen-ematea IntraFeb programaren bidez egingo da, eta lizentzia **ERABILTZEN hasi baino gutxienez 12 egun lehenago** izapidetu beharko da. **Arau hau ez betetzen ez bada**, 30 euroko kuota gehigarria ordaindu beharko da.

GFaren bidez izena ematen duten errendimenduko kadeteen talde guztiek eta parte-hartzeko kadeteen talde guztiek **taldekide guztien NAN aurkeztu beharko dute GSFn, 2018ko urriaren 15a baino lehen.**

Izena eman ahal izateko, taldeek 1. Eranskinean zehazten diren eskubideak ordaindu beharko dituzte.

#### **10.3.- JOKALARIAK IGOTZEA**

Partida batean, talde bakoitzak gutxienez bost lagun apuntatu beharko ditu aktan. Era berean, lurralde mailako lehiaketetan, kirol elkarte edo klub bereko 7 jokalarik apuntatu ahal izango dira aktan, taldekideak ez direnak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

-Kategoria berekoak izan, parte-hartzeko taldeetatik errendimenduko taldeetara, senior mailako lehiaketetan, berriz, izena emanda dagoenetik goragoko edozein lehiaketetara.

-Maila bat beheragoko kategoriatik etorri, Infantil Txiki kategorian jokatu ezin duten alebinak izan ezik.

Inork ezingo du jokatu lehiaketa berean ari diren bi taldetan.

## TEKNIKARIAK

Titulazio hauek beharko dira ondoko kategorietan entrenatzaile aritzeko:

Hastapeneko entrenatzailea:	→ Infantilak eta kadeteak.
GSFko monitorea:	→ Infantilak, kadeteak eta juniorrak.
I. mailako entrenatzailea:	→ Infantilak, kadeteak, juniorrak eta lurraldeko seniorrak
Saskibaloiko entrenatzailea:	→ Autonomi arteko senior lehiaketak.
II. mailako entrenatzailea:	→ Autonomi arteko senior lehiaketak.
Goi mailako entrenatzailea:	→ Nazio mailako senior lehiaketak.

GSFko Zuzendaritza Batzordeak, kasu berezietan, baimena eman ahalko du, beharrezkoa baino maila bat baxuagoko titulua duten entrenatzaileak entrenatzaile lanetan jardun daitezen. Horretarako, beharrezkoa izango da klubak aldez aurretik idatziz eskaera aurkeztea eta eskatzen den titulua lortzeko ikastaroko izen-emate kuota jartzea, hurrena ikastaroa antolatzen denean izena emango duela hitz emanda. Hurrengo ikastarora aurkeztu ezean, jarritako dirua galdu egingo du.

Interesa duen klubak aldez aurretik idatziz eskatuta, GSFk baimena eman ahalko du klub bereko beste entrenatzaile batek, behar den titulazioa duenak eta DENBORALDIRAKO LIZENTZIA INDARREAN DUENAK klub bereko beste talde baten partida bat zuzentzeko.

Entrenatzaile batek gehienez hiru (3) talde entrenatu ahal izango ditu, eta federazio lizentzia bi taldetan soilik eman ahal izango zaio.

GSFk antolatzen dituen lehiaketetan, entrenatzaile laguntzailearen lizentziak eman ahal izango zaizkie junior eta senior kategorietan, hastapeneko edo GSFko monitorea titulua duten pertsonen. **Nolanahi ere, lizentzia horrek ez du ahalmenik ematen partidetan taldea gidatzeko.**

## ORDEZKARIAK ETA LAGUNTZAILEAK

### 12. Artikulua:

Lurraldeko lehiaketei buruz ESFren Araudi Orokorrek ezartzen duenaz gainera, hauek hartu behar dira aintzat:

- Klub bakoitzak jokalekuko ordezkariaren lizentzia bakar bat eduki ahal izango du talde guztietarako. Partida guztietan egon beharko da jokalekuko ordezkari bat, eta **federazioak emandako lizentziaren bidez egiaztatu beharko du bere nortasuna**. Etxeko taldeari dagokionez, Federazio lizentziaren bat daukan edonork bete ahal izango du jokalekuko ordezkariaren eginkizuna, betiere beste eginkizunik betetzen ez badu.

### 13. Artikulua: EPAILEAK: ARBITROAK, LAGUNTZAILEAK ETA ARBITRO TEKNIKARIAK

#### 13.1- KATEGORIAK ETA LIZENTZIA MOTA

Epaile eta mahaiko laguntzaileen izen-ematea GSFren bitartez egingo da, araudiak ezartzen dituen baldintzen arabera betiere. Urtero berrituko da.

ESFren Araudi Orokorrak ezarritakoaren arabera, arbitroak, mahaiko laguntzaileak eta epaile teknikoak honela banatuko dira kategoriaz kategoriaz:

- ACB
- 1. MULTZOA (LEB, LEB-2, EMAKUMEZKOEN LIGA ETA EMAKUMEZKOEN LIGA)
- 2. MULTZOA (EBA ETA EMAKUMEZKOEN LIGA-2)
- 3. MULTZOA (GIZONEZKOEN ETA EMAKUMEZKOEN LEHEN MAILA)
- 4. MULTZOA (GIZONEZKOEN AUTONOMI ARTEKOA ETA BIGARREN MAILAKO EMAKUMEZKOENA)
- PROBINTZIAKOA.
- GKP

Epaileen Batzordeak proposatuko dizkio GSFri arbitroen eta mahaiko laguntzaileen kategoriak, onar ditzan.

Epaileak eta laguntzaileak jokalaria, entrenatzaile edo jokalekuko ordezkari ere izan ahalko dira.

GKP epailea klub bakar bati loturik egongo da, eta diru laguntza jasotzeko aurkeztu ahal izango da. GKP epaileak izena ematean adierazi beharko du zein kirol klubi lotuko zaien. GKP akordioetan baloratuko da klub bakoitzak gutxieneko epaile-kopuru bat aurkeztea, daukan talde-kopuruaren arabera.

Epaileek, jokalariek bezala, mediku ziurtagiria aurkeztu beharko dute saskibaloian aritzeko gai direla egiaztatzeko.

### **13.2- ETXEKO TALDEAREN MAHAIKO LAGUNTZAILEA**

Mahaiko laguntzaileak izendatu ahal izango dira, inguruan soilik jardungo direnak, gehienez ere herritik 15 km-ra.

Epaile batzordeak ezin badu mahaiko laguntzailerik izendatu partida baterako, etxean jokatzen duen klubak hartu beharko du bere gain eginkizun hori (horretarako, arauzko aktak eramatea gomendatzen da); kanpoan jokatzen duen taldeak ere aukera du pertsona bat jartzeko. Pertsona horiek ez dira azalduko arbitroen ordainagirian.

Errendimenduko partidetan, etxeko taldearen ardura izango da pertsona horiek izendatzea, eta parte hartzeko infantilen, kadeteen, juniorren eta hirugarren mailako seniorren partidetan, aurrez GSFri jakinarazita (jardunaldiaren aurreko asteartea baino lehen eta epaileak izendatzen dituenarekin adostuta).

Epaile Batzordeak izendatzen duen etxeko taldearen mahaiko laguntzailea, gutxienez GKP titulazioa duena, epailetza ordainagirian agertuko da, eta Ohiko Batzar Nagusian agertzen diren zenbatekoak jasotzeko eskubidea izango du.

GSFren ardura izango da laguntzaile horiek izendatzea.

### **13.3.- ARBITROEN ETA MAHAIKO LAGUNTZAILEEN BETEBEHARRAK ETA PROZEDURAK**

#### *13.3.1- Kronometroak, markagailuak eta denbora*

Mahaiko ofizialek kronometroa eraman beharko dute izendatuta dauden partidetar. Etxeko taldearen laguntzaileak ez diren kideen kronometro-kostuak GSFk ordainduko ditu.

Mahaiko bi laguntzaile izendatzen direnean eta markagailu elektronikoa dagoen jokalekuetan markagailua eta joko-denbora bertatik eramango dira.

#### *13.3.2.- Jai hartzeko eskaera*

Epaileei eta mahaiko laguntzaileei jai hartzeko baimena emango zaie, betiere jardunaldi bakoitzerako dauden beharren arabera, eta 10 egun lehenago eskatu beharko da, ezinbesteko kasuetan izan ezik. GSFk erabakiko du ezinbesteko kasua den ala ez.

### 13.3.3- Izendapenak

Izendapenak ostegun arratsaldeko 18:30ean argitaratuko dira, Gipuzkoako Saskibaloï Federazioaren webgunean. Epailleek eta laguntzaileek pasahitz bat izango dute gune horretara sartzeko. Edozein zalantza edo arazo sortzen bada izendapenak direla-eta, arduradunarekin jarri behar da harremanetan, [arbitros@fgbaloncesto.com](mailto:arbitros@fgbaloncesto.com) helbide elektronikoan.

### 13.3.4 Tarifak eta nork ordainduko dituen

Bigarren eranskinean jasotzen dira epaileen tarifak **2018-2019** denboraldirako.

okutzen ez diren partidetakoa arbitraje eskubideak eta gastuak honela ordainduko dira:

1. Etxeko taldearekin inolako zerikusirik ez duen arrazoiren bat dela medio bertan behera geratu den partida. Kasu bakoitzean aztertuko da zergatik ez den jokatu partida, dagokionak arbitraje gastuak ordain ditzan. Partida jokatzen denean, berriz, etxeko taldearen kontura izango dira gastuak
2. Talde baten ez-agertze justifikatua: jokatu ez den partidako gastuak etxeko taldeak ordainduko ditu eta jokatuko den partidako gastuak zurututako atzerapena eragin duen taldeak.
3. Ez-agertze justifikatu gabea: Agertu ez den taldeak ordainduko ditu bertan behera geratu den partidako gastuak

Jokaleku neutralean jokatzen diren balizko finalen, finalerdien, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzekeo partiden eta abarren eskubideak erdi bana (% 50) ordainduko dituzte partaideek.

### 13.3.5 ***Emaitzak jakinaraztea, aktak bidaltzea, arbitrajeen ordainagiriak eta gertaeren txostenak***

#### Arbitroak

GSFren webgunean ([www.gisaski.eus](http://www.gisaski.eus)), arbitroen gunean, hauek sartu beharko dira:

- Akta eta txostena: argazkia atera eta GSFren sistema informatikora bidali.
- Arbitraje ordainagiria: Parte hartu duten guztien eta bakoitzaren joan-etorri gastuak sartu, eta GSFren sistema informatikora bidali.
- Bidaltzean arazorik izanez gero, emaitza "900 840 020" telefono-zenbakian jakinarazi beharko da, eta akta, ordainagiria eta txostena posta elektronikoz bidali beharko dira helbide honetara: [maribel@fgbaloncesto.com](mailto:maribel@fgbaloncesto.com).

Partida bukatu eta berehala sartu beharko dira emaitzak sistema informatikoan, eta aktak eta txostenak (egonez gero), partida jokatu eta 24 ordu igaro baino lehen.

Doako telefono zenbakira deituta jakinarazterik ez badago, partida bakoitzeko epaile nagusiaren betebeharra da GSFko erantzungailu automatikora deitu (943-473324) eta emaitza ematea.

Baliabide informatikoen bidez bidaltzerik ez badago, epaile nagusiak aurreikusi egin beharko du partidako aktak GSFren esku egon behar duela asteleheneko 20:00ak baino lehen, partida asteburuan jokatu bada, edo hogeita lau ordu igaro baino lehen, astegunean jokatu bada. Istilurik gertatuz gero, horien gaineko txostena aktarekin batera bidali behar da.

Aurreikusita dago akta digitala ezartzea GSFren lehiaketa batzuetan (zehazteke), baina ezarri aurretik, mahaiko laguntzaileen kolektiboarekin negoziatuko dira balizko ordain ekonomikoak.

#### Klubak eta ikastetxeak

Partida bat epailerik gabe jokatzen baldin bada, etxeko taldeak emaitzaren berri eman beharko du 900 840 020 telefono zenbakira deituta, eta partidaren akta GSFra bidali beharko da, helbide honetara: [maribel@fgbaloncesto.com](mailto:maribel@fgbaloncesto.com).

Gipuzkoako Saskibaloï Federazioak antolatzen ez dituen lehiaketetan – **lehiaketa nazionalak, autonomikoak etab.**- parte hartzen duten taldeak dauzkaten klubek, Gipuzkoatik kanpo jokatzen dutenek edo gipuzkoarrak ez diren epaileak egokitzen zaizkienek, emaitzaren berri eman beharko dute partida amaitu eta ordubete igaro baino lehen, 900 840 020 doako telefono zenbakira deituta.

Epaile nagusiaren ardura izango da taldeen izena, data eta partidaren kategoria aktan zuzen jasota azaltzea. ***Ondo egin ezean, urraketa arintzat hartuko da.***

### 13.3.6 Ordainagiriak

Epaile nagusiak beteko epailetza ordainagiria. Epaile taldearen joan-etorri gastuak Epaile Batzordeak kalkulatuko ditu. Etxeko taldearen betebeharra da hura berrikustea eta oniritzia ematen badio izenpetzea. Zenbatekoarekin ados ez badago, epaileak desadostasunaren zergatia jasoko du aktaren atzealdean, beharrezko ondorioetarako.

## 13.4 EPAILEAK EZ AGERTZEA

Klubek GSFren webgunean ([www.gisaski.eus](http://www.gisaski.eus)), klubentzako sarbidean (erabiltzaile eta pasahitzarekin), ostegun arratsaldeko 18:30etik aurrera begiratu beharko dute beren partidetarako zein epaile dauden izendatuta. Epaile talderik izendatu ez delako ezingo da hori dela-eta neurketa bertan behera utzi, eta nahitaez jokatu beharko da. Epaile eta ohar-hartzaile lanak bi taldeetako ordezkari banak egingo dituzte (horrelakoetarako komeni da arauzko aktak eramatea). Arau hau betetzen ez bada, bi taldeei emango zaie galdutzat partida, baina ez zaie sailkapenetik punturik kenduko.

Partida zuzentzeko izendatutako epailea agertzen ez bada, bide hauetakoren bat hauta dezakete taldeek:

- 1) Partida jokatu, epaile eta ohar-hartzaile lanak bi taldeetako ordezkarien artean banatuta (bi epaile, mahaiko bi laguntzaile).
- 2) Partida hurrengo hamabost egunetan jokatzea hitzartu; lehiaketa amaitzeko hamabost egun besterik geratzen ez bada, amaiera eguna baino lehen jokatu beharko da, eta horren berri idatziz eman GSFri. Hitzarmenean ondorengoak jaso beharko dira: lehiaketaren maila, bi taldeen izenak, eguna, ordua eta partida non jokatuko den. Horrela egiten ez bada, azkenean, Lehiaketa Batzordeak berak jarriko ditu partida jokatzeko eguna eta ordua. Horrek balioko du bai errendimenduko bai parte-hartzeko lehiaketetarako.

Epaile lanak federatu gabeko epaileek egiten badituzte, etxeko taldeak izendatutako epailea izango da epaile nagusia.

## 13.5 EPAILE TALDE ESTANDARRA eta ARBITRAJE ESKAERAK

Bigarren eranskinean zehazten dira gutxieneko eta gehienezko epailetza baldintzak, kategoriaz kategorია eta lehiaketaz lehiaketa. GSFk ez du izendatuko baldintza estandar hauek gainditzen dituen epailetza talderik, klubek beren gain harturiko gastuetan gorabeherarik sor ez dadin. Baldintza hauek aldatu ahal izango dira epaile eta laguntzaile berriak prestatzen ari badira; kasu horretan, beti lagunduta joango dira.

Klubek aukera daukate baldintza estandarrak gainditzen dituzten arbitrajeak eskatzeko, partida jokatu baino 15 egun lehenago. Ohiko gastuak etxeko taldeak ordainduko ditu eta gastu gehigarriak, berriz, talde eskatzaileak. Izendapena egingo da, betiere epailerik libre badago.

Lagunarteko partidetarako, denboraldi-aurreko partidetarako edo ofizialak ez diren beste edozeinetarako epaileak eta mahaiko laguntzaileak GSFn eskatu behar dira, idatziz, gutxienez zazpi egun lehenago. Zazpi egun baino tarte gutxiagorekin eskatzen bada, 30 euroko kanona ordaindu beharko da errendimenduan eta 10 euroko parte-hartzean.

Lagunarteko partidetak epaile eskubideak 2. eranskinean jasotakoak izango dira, % 25 kenduta. Lagunarteko partida guztiak parte-hartzeko partidatzat hartuko dira eta epaileek nahiz laguntzaileek % 100 kobratuko dute (eta senior gizonetzkoena 2 mailakotzat hartuko da). Lagunarteko partidetan maila desberdineko taldeek jokatzen dutenean, bi maila dagozkien epaile eskubideen batez bestekoa aterako da epaile eskubideak zein diren jakiteko. Erkidego mailako edo maila nazionalako taldeek parte hartzen duten lagunarteko partidetak epaile eskubideak oinarrietan ezarritakoak izango dira, % 50 murriztuta. Lagunarteko partidetan eskubideen % 100 jasoko dute ohar-hartzaileek.

## 14. Artikulua. JOKALEKUAK

Talde bakoitzak jokaleku ofizial bat izango du, GSFk homologatua. Jokalekua homologatua izan daiteke parte-hartze eta

errendimenduko lehiaketetarako. Nolanahi ere, errendimenduko lehiaketak instalazio estalietan eta itxietan jokatu beharko dira.

## 15. Artikulua. PARTIDAK BERTAN BEHERA UZTEA

Edozein arrazoi dela medio partida bat bertan behera utziko balitz, bi taldeak ados jarri ondoren adierazi egin beharko dute neurketa noiz eta non jokatuko den, betiere hurrengo hamabost egunen barruan. Lehiaketa amaitzeko hamabost egun edo gutxiago geratuz gero, hura amaitu baino lehen jokatu beharko da partida, eta GSFri jakinarazi behar zaio. Horrela egiten ez bada, azkenean, Lehiaketa Batzordeak berak jarriko ditu partida jokatzeke eguna eta ordua. HORI GUZTIA GSFk ERABAKI LEZAKEENAREN BAITAN.

Probintzia mailako lehiaketa guztiak egutegian adierazitako jardunaldian jokatuko dira nahitaez, ezingo da jokalekua egoera txarrean dagoela edo antzeko aitzakiarik erabili, partida bertan behera uzteko horiek erabakigarriak ez badira behintzat. Epailiek ahalegin guztiak egingo dituzte partidak joka daitezzen, eta ikusten dituzten irregulartasun guztiak aktan jasoko dituzte, Lehiaketa Batzordeak azter ditzan.

## 16. Artikulua. TALDE TEKNIKOA

Etxeko taldeak mahaiko laguntzaileen esku jarriko ditu 4 falta pertsonaleko bi banderatxo gorriak, eta alboko sakea adierazteko gezia; horiek eskuratu ezean, zigor arina ezarriko da. Mahaiko laguntzailerik edo/eta etxeko taldearen mahaiko laguntzailerik izendatzen ez den partidetan, etxeko taldearen ardura izango da kronometroak egotea.

Oharrak hartzeko mahaiaren alde banatan, eta bertatik hiru metrora, bi taldeetako kideak esertzeko behar beste aulki edo eserleku jarriko ditu etxeko taldeak, **eta baloiak, gutxienez talde bakoitzerako 3, eta jokorako bat.**

## 17. Artikulua. TALDEEN JANZKERA

Taldeetako jokalariren janzkerari dagokionez, Joko Arauetan eta Araudi Orokorrean jasotakoa beteko da. Dena dela, jantzien kolorea nahasgarri izan badaiteke, egutegi ofizialean, eta beraz aktan, izena bigarren lekuan agertzen den taldeak (kanpokoak) aldatu beharko du.

GSFk antolatzen dituen parte hartzeko lehiaketetan ez da arau-urraketatzat hartuko jokalaririk kamisetaren aurrean zenbakirik ez eramatea.

## 18. Artikulua. PARTIDEN DATAK ETA ORDUTEGIA

Lehiaketa bakoitzeko arauetan partidak jokatzeke adierazten diren datak aldaezinak dira.

Jardunaldi bakoitzeko programazioa GSFren webgunean argitaratuko da. Jardunaldi horietan ezartzen dena aldatzeko, 19. artikuluan jasotzen den prozedura jarraitu beharko da. Inondik inora ere ezingo da argudiatu egunaren, orduaren eta jokalekuaren berri ez izatea.

### Hauek izango dira ordutegi ofizialak:

- Ostiraletan 18:00etatik 20:30era
- larunbatetan 14:00etatik 20:30era eta igandetan 09:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.
- Infantil, kadete eta junior mailetan, larunbatetan 09:00etatik 14:00etara ere joka daitezke partidak.
- GSFko Zuzendaritza Batzordeak baimena eman dezake senior mailako partidak larunbat goizetan jokatzeke.
- Partidak igandetan jokatzen dituzten taldeek aste bereko beste egun batera aldatu beharko dute partida, bi taldeetakoren bateko jokalariren/**entrenatzailearen bat** lurraldeko edo Euskadiko selekzioarekin jokatzen hautatu baldin badute.
- Klubek saiatu beharko dute **EZ** jartzen parte-hartze ibilbideko partidarik larunbat arratsaldeetan, 16:00etatik 18:30era.
- Lehiaketa guztietan, talde batek senior mailakoa ez den Euskadiko Txapelketan, Sektore Faseetan edo Espainiako Txapelketetan jokatzen badu, talde aurkariak probintzia mailako partida aurreratu egin beharko du.



- Era berean, bai Gipuzkoako Txapelketan edo bai joka litezkeen beste txapelketa batzuetan, talderen batek jokalariren bat baldin badu lurralde, autonomia edo estatu mailako selekzioaren batera deitua, probintzia mailako partida aurreratu egin beharko da.
- **Gipuzkoako Selekzioek entrenamenduak dituzten bitartean, maila horretako taldeek ezingo dituzte partidak jokatu igande arratsaldez (ikus 3. Eranskina).**

Aurreko paragrafoetan adierazitako egoeran egon eta talde aurkariak partida aurreratzea onartuko ez balu, GSFri jakinarazi beharko zaio, hamar egun lehenago; eta hark ezarriko du, ofizioz, partida zer egunetan eta zer ordutan jokatuko den. Aurreko astean edo ezarrita zegoen jardunaldia baino bi aste geroago jokatuko da, betiere ez bada fase baten amaiera.

## 19. Artikulua. PARTIDEN PROGRAMAZIOA ALDATZEA

Federazioak baimena eman ahalko du aurrez ezarritako eguna baino lehen jokatzekeo partida bat.

GSFk partidak atzeratzeko baimena eman dezake, kasu berezietan, betiere hurrengo jardunaldia baino lehen jokatzekeotan (hurrengo asteko ostirala baino lehen), eta fase baten amaiera ez bada. Partida bat atzeratzea eragiten duten aldaketak 30 €-ko kanona izango dute parte hartzeko kategorietan eta 60 €-koa errendimenduko lehiaketetan.

Aldaketak egin ahal izango dira partidak atzeratzeko lehiaketaren asteko astelehenera arte, betiere kanpoko taldearen baimenarekin.

Jokalekua, data eta ordutegia aldatzeko eskaerak idatziz, fax bidez edo GSFren webgunearen bidez ([www.gisaski.eus](http://www.gisaski.eus)) egin ahal izango dira.

Aldaketa ordutegi ofizialaren barnean egiten bada, betiere partida programatuta zegoen jardunaldiaren barnean, eta horren berri GSFri gutxienez hilabete lehenago ematen bazaio, talde aurkariaren adostasuna ez da beharrezkoa izango.

Partida eguna baino hilabete eta hamar egun artean lehenago egiten bada eskaera, **talde aurkariaren adostasuna beharko da**. Kasu horretan, ez da ezer ordaindu beharko, partida atzeratzeak dakartzan gastuak izan ezik.

Aurreko paragrafoan jasotako baldintzetatik kanpo, ez da baimenik emango inolako aldaketarik egiteko, behar bezala zurututako ezinbesteko kasuetan izan ezik. Partida bat aurreratu behar bada, 30 euro kostatuko da errendimenduko lehiaketetan, eta 10 € parte hartzeko lehiaketetan **errendimenduko minibasketean**. Partida bat atzeratu behar bada, berriz, 60 euro kostatuko da errendimenduko lehiaketetan, eta 30 € parte hartzeko lehiaketetan. Eskaera horiek egiteko talde aurkariaren oniritzia beharko da.

Ez da "ezinbesteko kasutzat" hartuko taldekide batzuk ikasketa amaierako bidaiara joatea edo entrenatzaile batek partidara etorri ezina.

Aldaketak GSFk onartu beharko ditu, ezarritako epeen barruan etab bi taldeen adostasunarekin aurkeztu arren. Aurreko baldintza horiek bete gabe jokatzen den partidaren emaitza ez da onartuko.

Partida bat bertan behera uztea eskatzen denean gaixotasunagatik, eskaerarekin batera partida bertan behera uztea justifikatzen duten gutxieneko jokalarikopuruaren mediku ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

## 20. Artikulua. GOMENDIOAK

Harmonia errespetatu beharra dagoela gogorarazten zaie klubei, bai federazioko antolakuntzarekiko bai gainerako kirol klub edo elkarteekiko; ezingo da, beraz, harmonia hori hausten duen ekintzarik edo adierazpenik gauzatu. Era horretako ekintzatat joko da, besteak beste, lehiaketa garaian jokalarikopuruaren jotzea etorkizunerako hura fitxatu nahian, lizentzia dueneko klubari alde aurretik ezer jakinarazi gabe. Arau hau ez betetzea urraketa oso larritzat hartuko da; 30-150 euro bitarteko isuna jarriko da parte-hartzekoan, eta 150-1500 euro bitartekoa errendimenduan. Isun ekonomikoaz gain, GSFren Diziiplina Batzordeak erabakiko du zer zigor ezarri.

## **21. Artikulua. EPAILE-LANAK ORDAINTZEA**

GSFk antolatzen dituen edo ez dituen lehiaketetako epaile lanak klub bakoitzak federazioarekin duen kontutik ordainduko dira, betiere, saldo positiboa izanez gero eta epaile lana etxekoa, Gipuzkoako Arbitroen Batzordeko epaileek egina bada.

Klub bakoitzak, lehiaketa garaiko hilaren 10a baino lehen (mugaegunaren hurrengo hilean, hau da, lehenengo sarrera azaroaren 10a baino lehen) hil horretako epaile lanak ordaintzeko behar beste diru sartu beharko du aurretik GSFk bidaliko dio kontu laburpena. Arau hau betetzen ez duen bakoitzean, 40 euroko isuna jarriko zaio klubari. Arau hau behin eta berriz haustek klubeko talde guztiak lehiaketatik kanporatzea ekar lezake. GSFk eta kasu berezietan malgutu ahal izango du arau hau.

## **22. Artikulua. DIZIPLINA ARAUBIDEA**

GSFk ondorengo diziplina araubideak erabiliko ditu: ESFren Diziplina Araudia, 4. eranskinean jasotako aldaketak barne, erabiliko da errendimenduko lehiaketetan eta senior kategoriako lehiaketetan. Parte-hartze ibilbideko infantil, kadete eta juniorren lehiaketak arautzeko Partaidetzako Diziplina Araudia ere erabiliko da, 4. eranskina barne.

**LEHENENGO ERANSKINA**

**TALDEEN IZAPIDEEN KUOTA 2017-2019 DENBORALDIRAKO**

KATEGORIA	GSFren KUOTA
Seniorrak	325 Euro
Errendimenduko juniorrak (Lehen mailak+Euskadiko Liga)	200 Euro
Parte-hartzeko juniorrak (Bigarren mailak)	50 Euro
Errendimenduko kadeteak (Lehen mailak+Euskadiko Liga)	200 Euro
Parte-hartzeko kadeteak (Bigarren mailak)	50 Euro
Errendimenduko infantilak	100 Euro
Infantilak	50 Euro

**GSFn IZENA EMATEKO KUOTA**

Izena emateko kuota Kutxako 2095 5009 73 1061453543 kontuan sartu behar da, edozein bulegotan. Diru sarrera zein klubek egin duen adierazi eta eskatu ordainagiria, taldeen izenak ematean derrigorrez aurkeztu beharko da eta. Federazio honekin zorretan dauden klubuen izen ematerik ez da onartuko.

**KIROL ASEGUAREN ETA LIZENTZIEN IZEN-EMATEAREN KUOTA**

Denboraldi honetarako lizentzien izen-ematearen kuotak honako hauek izango dira, **Euskadiko Federazioak Kirol Aseguruaren zenbatekoa berretsi ondoren:**

Lizentzia motak	Kir. ase.	Lizen. tram.	Guztira	Kontr. GSF	Denb. 18/19
LFB jokalaria	81,38	23,67	105,05	89,29	194,34
Urrezko Adecco jokalaria	81,38	23,67	105,05	89,29	194,34
Zilarrezko Adecco jokalaria	81,38	23,67	105,05	52,52	157,57
LF2 jokalaria	81,38	23,67	105,05	52,52	157,57
EBA jokalaria	81,38	23,67	105,05	39,22	144,27
Giz. 1. Mailako jokalaria	81,38	23,67	105,05	16,04	121,09
Emak. 1. Mailako jokalaria	81,38	23,67	105,05	16,04	121,09
Giz. 2. Mailako jokalaria	81,38	23,67	105,05	16,04	121,09
Emak. 2. Mailako jokalaria	81,38	23,67	105,05	16,04	121,09
BESTE LEHIAKETETAKO jokalaria	81,38	23,67	105,05	-5,23	99,82
Entrenatzailea	81,38	23,67	105,05	-5,23	99,82
Ordezkarria	81,38	23,67	105,05	-5,23	99,82
Epalea, KATEGORIAREN ARABERA (*)	81,38	23,67	105,05		(*)
Laguntzailea, KATEGORIAREN ARABERA (*)	81,38	23,67	105,05		(*)

GKP epailearen lizentzia **2018-19** denboraldirako **15€** kostatuko zaio epaileari, eta GKP epaile bakoitzari kobratuko zaio bere kontutik, behin partida batzuk epaitu ondoren.

Kuota hau ordaintzeko dirua Kutxako 2095 5009 73 1061453543 kontuan sartu beharko da. Diru sarreraren ordainagiria GSFn aurkeztu beharko da lizentziak izapidetzeko aurkezten direnean. Altak ematean ere bide bera jarraitu beharko da.

Premiazko osasun laguntza jasotzeko, larrialdikoa eta ez alor jakin batekoa, leku hauetara jo beharko da:

- **Eskolarteko lizentzia dutenak osasun sistema publikora.**
- **Federatu lizentzia dutenak kirol aseguruarekin hitzartutako zentzora.**

**BIGARREN ERANSKINA**

**EPAILETZA-TARIFAK 2018-19 DENBORALDIRAKO**

KATEGORIA PROBINTZIALA	ARBITRAJE BIKOITZA				ARBITRAJE ARRUNTA			
	ARBITROA K	MAHAIKO LAGUN.	BATZO RDEA	GUZTIRA	ARBITROA K	MAHAIKO LAGUN.	BATZOR DEA	GUZTIRA
Seniorrak Gizonezkoen 1. maila	26,00- 26,00	14,00-14,00 19,00	4,00 5,00	<b>84,00</b> <b>76,00</b>	42,00	14,00-14,00 19,00	5,00 7,00	<b>75,00</b> <b>68,00</b>
Seniorrak Gizonezkoen 2. eta 3. Maila eta Seniorrak Emakumezkoak	22,00- 22,00	13,00-13,00 17,00	4,00 5,00	<b>74,00</b> <b>66,00</b>	34,00	13,00-13,00 17,00	5,00 7,00	<b>65,00</b> <b>58,00</b>
Junior gizonezkoak eta emakumezkoak Errendimendua	22,00- 22,00	12,00-12,00 17,00	4,00 5,00	<b>72,00</b> <b>66,00</b>	29,00	12,00-12,00 17,00	5,00 7,00	<b>58,00</b> <b>53,00</b>
Junior gizonezkoak eta emakumezkoak Parte-hartzea	19,00- 19,00	9,50-9,50 12,50	4,00 5,00	<b>61,00</b> <b>55,50</b>	21,00	9,50-9,50 12,50	5,00 7,00	<b>45,00</b> <b>40,50</b>
Kadeteak Errendimendua	19,00- 19,00	11,00-11,00 16,00	4,00 5,00	<b>64,00</b> <b>59,00</b>	25,00	11,00-11,00 16,00	5,00 7,00	<b>52,00</b> <b>48,00</b>
Kadeteak Parte-hartzea	16,00- 16,00	8,50-8,50 9,50	4,00 5,00	<b>53,00</b> <b>46,50</b>	19,00	8,50-8,50 9,50	5,00 7,00	<b>41,00</b> <b>35,50</b>
FINAL FOUR Seniorrak, Juniorrak, Kadeteak, Infantilak eta Alebinak	27,00 - 27,00	15,00- 15,00-15,00	10,00	<b>109,00</b>				
<b>Errendimenduko INFANTILAK</b>	17,00 - 17,00	8,00-8,00 10,00	3,00 4,00	<b>53,00</b> <b>48,00</b>	22,00	8,00-8,00 10,00	4,00 4,00	<b>42,00</b> <b>36,00</b>
	13,00- 13,00	8,50 - 8,50 8,50	3,00 3,00	<b>46,00</b> <b>37,50</b>	17,00	8,50- 8,50 8,50	3,00 3,00	<b>37,00</b> <b>28,50</b>
Eskolarteko selekzioak	19,00- 19,00	11,00-11,00	8,00	<b>68,00</b>	25,00	15,00	8,00	<b>48,00</b>
Eskolarteko faseak	18,00- 18,00	10,00-10,00	8,00	64,00	24,00	14,50	7,50	<b>46,00</b>
Minibasketa	13,00- 13,00	8,50-8,50	5,00	48,00	18,00	8,50	5,00	<b>31,50</b>

**Tarifa bereziak**

**GIPUZKOAKO SELEKZIOEN LAGUNARTEKOAK:** dagokion kategoriako parte-hartzeko partida baten eskubide berak.  
**LAGUNARTEKOAK:** Senior kategorian, probintziako 2. mailako tarifa izango da, nola gizonezko hala emakumezkoetan.  
 Lagunarteko partida guztiak parte-hartzeko partidatzat hartuko dira, eta epaileek nahiz laguntzaileek % 100 jasoko dute.  
 Kategoria nazionalako lagunarteko partidetan epaileek % 50 kobratuko dute eta laguntzaileek % 100

**DIETAK**

**JARDUNALDI EZ-OFIZIALA:** 12€ 20:00etatik aurrera hasten bada.

**JARDUNALDI OFIZIALA:** 12€ 12:30-16:00 bitartean edo 20:30etik aurrera hasten bada.

## KONPENTSAZIOA DEDIKAZIOAGATIK

**Epaileak: 15€**

**laguntzaileak: 10€**

### Ordutegi-tarte ofizialak

Ostirala: - Arratsaldea

Larunbata: - Goiza

- Arratsaldea

Igandea: - Goiza

- Arratsaldea

### Ordutegiak

Ostiralak: 18:00- 20:30

Larunbatak: 9:00-14:00

16:00 a 20:00

Igandek: 9:00-13:00

16:00- 20:00

Beraz, bost ordutegi-tarte daude.

Konpentsazio hau jasotzeko, epaileek eta mahaiko laguntzaileek ordutegi-tarte horretako % 80an epaitzeko prest egon beharko dute, denboraldi batean gehienez hiru jardunaldi har ditzakete libre, betiere jardunaldi berean epaileen eta mahaiko laguntzaileen % 10ek baino gehiagok eskatzen ez badute. Gainerakoan, jardunaldi bat libre hartzeko, behar bezala justifikatu beharko dute, betiere GSFren irizpideen arabera. Arau honetatik salbuetsita daude GSFn bestelako eginkizunetan (jokalari, entrenatzaile eta abar) aritzen diren epaileak eta laguntzaileak, beren lan-egutegiagatik jardun ezin dutenak.

Kasu guztietan, epaileek eta mahaiko laguntzaileek prest egon beharko dute ESFren eta GSFren jardunaldi bakoitzean.

Eskaeren hurrenkera-araudia. Araudi hau lankidetzan prestatuko dute GSFk eta epaileen eta mahaiko laguntzaileen kolektiboak 208-19ko lehiaketan lehen hiruhilekoan.

Ohar-hartzaile eta epaile aritzeko GSFn izena emateak esan nahi du ostiral, larunbat eta igandeko jardunaldietan aritzeko prest egotea. Asteko beste egun batzuetan aritzeko prest daudenek, berariaz adierazi beharko dute, eta jai hartzeko eskera-epaia jardunaldi ofiziala baino 10 egun lehenago amaituko da.

Lagunarteko torneoetan dietak ordainduko dira, besterik hitzartzen ez bada behintzat. Torneo hauetan, probintziako kategorian, 2. eranskinean ezarritako tarifa jasoko da, % 25 murriztuta. Kategoria nazional autonomikoan epaileek % 50 kobratuko dute eta laguntzaileek % 100. Epaileen Batzordearekin negoziatzeko aukera dago ofizialak ez diren partidetarako baldintza bereziak.

Ateak itxita jokatzeko diren entrenamendu-partidetan eskubideak adostuko dituzte izendatutako epaileak, klub eskatzaileak eta GSFk, epaile berriak prestatzeko balio duen partida ez bada behintzat.

Neurketa bat programatutako ordua baino beranduago hasten bada bi taldeetakoren batek errurik izan gabe, ez da dietarik ordainduko.

Dietak ordaindu egingo dira izendapen premiek edo beste edozerk etxera joatea galarazi eta mantenu-gastuak sortzen badira. Horrelako kasuetan, 15 euroko dieta ordainduko da pertsonako. Gastua sorrarazi duten bi partidek ordainduko dute erdi bana. (Dieta hau ordaintzeko, epaileek eta laguntzaileek otorduaren tiketa aurkeztu beharko dute, ordainagiriarekin batera).

Epaile nagusiak uste badu hemen jaso gabeko beste arrazoiren batek dieta kobratzeko moduko gastuak sorrarazi dituela, GSFri emango dio horren berri idatziz. Gero, federazioak erabakiko du bidezkoa den edo ez, eta bidezkoa bada nork ordaindu behar duen.

### **\* JOAN-ETORRIEN GASTUAK**

Partida jokatu den herrira epaile taldeko kideek egingo duten joan-etorriko bidaia ondorengo araei lotuko zaie:

1) Erabili duten garraiobidearen arabera - trena, autobusa edo norberaren autoa - ordainduko zaie joan-etorriko kostua.

2) Garraio publikoa erabili beharrik ez badago, bidaiarik ez da ordainduko (Bizilekua autobus geltoki bat baino gutxiagora baldin badago kiroldegitik, edo autoa eramango duenarekin autobus geltoki bat baino gutxiagora gelditzen bada bizilekutik). Partidara edo hitzordura joateko garraiobide publikoa erabili behar bada, **3 euroko** joan-etorri gastua aurkeztuko da.

3) Norberaren autoa erabiliz gero, kilometroko 0, 30 euro ordainduko zaio, joan-etorria kontuan hartuta. Partida jokutzen den herri berean bizi bada epailea, ez zaio kilometrajerik ordainduko. Horrelakoetan, autoz joaten direnei **3 euro** ordainduko zaie joan-etorria. GSFren joan-etorrietarako autorik ez duenak ezingo du kilometro gastuak ordaintzeko gasturik aurkeztu.

Auto bakarra erabili dutela ulertuko da. Arbitraje bikoitza baldin bada, bi autotan joan daitezke, betiere epaile taldeko kideen bizilekuak joan-etorria egingo den ibilbide berean ez badaude. Epaile taldeko kide guztiak ibilbide berean bizi badira, eta elkarrekin egiten ez badute joan-etorria, ibilbiderik luzeena egin duen kidearen joan-etorria soilik ordainduko da, non eta izendapenak hartara behartu ez dituen.

Epaile taldekoren batek joan-etorri kontzeptuari dagokion baino kopuru handiagoa ezartzen badio, **20 euroko isuna** jarriko zaio.

Joan-etorrian autopista ordaintzen bada, ordainagiria aurkeztu beharko da, ahal bada behintzat.

Donostia barruan jokaleku batetik bestera jarraian joaten bada epaile taldea, **5 euroko** ordaina emango zaio ibilgailua eramaten duenari, eta gainerakoek ezingo dute kilometroen gasturik pasatu.

**2018-19 DENBORALDIKO GIPIZKOAKO SELEKZIOEN ENTRENAMENDU ETA LEHIAKETEN PLANGINTZA**

**JUNIOR GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOAK**

- Lurralde selekzioen arteko Euskadiko Txapelketa:
  - Lehiaketa egunak: 2018ko abenduaren 7a eta 28a.
  - Lekua: **Gipuzkoa**
  - Entrenamenduak igande arratsaldeetan: azaroak 25 eta abenduak 2, 6, 16, 23, 26 eta 27-28.

**KADETE GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOAK:**

- Lurralde selekzioen arteko Euskadiko Txapelketa:
  - Lehiaketa egunak: 2018ko azaroaren 3a eta 4a.
  - Lekua: **Nafarroa**
  - Entrenamenduak igande arratsaldeetan: irailak 23 eta 30, urriak 7, 12-14, 21 eta 28, eeta azaroak 1 eta 3-4

**INFANTILAK GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOAK**

- Lurralde selekzioen arteko Euskadiko Txapelketa:
  - Lehiaketa egunak: 2018ko azaroaren 3a eta 4a.
  - Lekua: **Bizkaia**
  - Entrenamenduak igande arratsaldeetan: irailak 23 eta 30, urriak 7, 12-14, 21 eta 28, azaroak 1 eta 3-4.

**MINIBASKET MASCULINO Y FEMENINO**

- Campeonato de Euskadi de Selecciones Territoriales:
  - Lehiaketa egunak: 2018ko abenduaren 29 eta 30a.
  - Lekua: **Araba**
  - Entrenamenduak igande arratsaldeetan: azaroak 18 eta 25 eta abenduak 2, 6-9, 16, 23, 26 eta 29-30.

**DIZIPLINA ARAUDIA ETA BESTE ARAU BATZUK**

<b>Parte-hartze ibilbideko diziiplina araudia</b>	<b>Errendimendu ibilbideko diziiplina araudia</b>
<b>Kategoriak: Parte-hartzeko infantilak, kadeteak eta juniorrak eta errendimenduko txikiak</b>	<b>Kategoriak: Errendimenduko infantilak, kadeteak eta juniorrak. Senior lehiaketa guztiak.</b>
Euskadiko Saskibaloia Federazioak indarrean duen diziiplina araudia erabiliko da lehiaketa hauetan guztietan, aldaketa hauek alde batera utzirik:	Euskadiko Saskibaloia Federazioak indarrean duen diziiplina araudia erabiliko da lehiaketa hauetan guztietan, aldaketa hauek alde batera utzirik:
<b>Isunen zerrenda:</b>	<b>Isunen zerrenda:</b>
<b>Jokalariek, entrenatzaileek, ordezkariak eta zuzendaritzako kideek egindako arau-urratzeak.</b>	<b>Jokalariek, entrenatzaileek, ordezkariak eta zuzendaritzako kideek egindako arau-urratzeak.</b>
Urratze oso larriak (36. art. 1. paragrafoa): 30-150 euroko isuna. Urratze larriak (37. art. 1. paragrafoa): 10-30 euroko isuna. Urratze arinak (38. art. 1. paragrafoa): 15 euro arteko isuna.  Entrenatzaile bat partida batera agertzen ez bada, 15 euroko isuna ezarriko da. (44-2 E)	Urratze oso larriak (36. art. 1. paragrafoa): 150-1.500 euroko isuna. Urratze larriak (37. art. 1. paragrafoa): 60-150 euroko isuna. Urratze arinak (38. art. 1. paragrafoa): 60 euro arteko isuna.  Entrenatzaile bat partida batera agertzen ez bada, 30 euroko isuna ezarriko da.
<b>Klubek egindako arau-urratzeak</b>	<b>Klubek egindako arau-urratzeak</b>
Urratze oso larriak (42. art. 1. paragrafoa): 30-150 euroko isuna. Zuritu gabeko ez-agertzeak gutxienez 30 euroekin zigortuko dira. Urratze larriak (44.1. eta 44.2. art., 1. paragrafoa): 10-30 euroko isuna. <b>Talde bat erretiratzea: gutxienezko isuna 75€ (K.A.ko 47. artikulua)</b>  Urratze arinak (45. art. 1. paragrafoa): 15 euroko isuna lizentzia bakoitzeko, gehienez 150 euro.  Triptikoa aurkezten ez bada, 6 euroko zigorra ezarriko da.  Partida baten emaitza jakinarazten ez bada, 5 euroko zigorra ezarriko da.	Urratze oso larriak (42. art. 1. paragrafoa): 150-1.500 euroko isuna. Zuritu gabeko ez-agertzeak gutxienez 150 euroekin zigortuko dira. Urratze larriak (44.1. eta 44.2. art., 1. paragrafoa): 60-150 euroko isuna. <b>Talde bat erretiratzea: gutxienezko isuna 150€ (K.A.ko 47. artikulua)</b>  Urratze arinak (45. art. 1. paragrafoa): 30 euroko isuna lizentzia bakoitzeko, gehienez 150 euro.  Triptikoa aurkezten ez bada, 30 euroko zigorra ezarriko da.  Partida baten emaitza jakinarazten ez bada, 10 euroko zigorra ezarriko da.  Partida baten akta epe banean entregatzen ez bada, 10 euroko isuna ezarriko da.
<b>Ez da arau-urratsetzat hartuko da jokalariek kamisetaren aurrean zenbakirik ez eramatea.</b>	<b>Bai da arau-urratsetzat hartuko jokalariek kamisetaren aurrean zenbakirik ez eramatea. (45C- RD)</b>
<b>● Epaille taldeko kideek egindako arau-urratzeak</b>	<b>Epaille taldeko kideek egindako arau-urratzeak</b>
Urratze larriak (40 art.), E atala: Partida batera inolako arrazoirik gabe agertzen ez den lehen aldia partida horren epaille eskubideen hiru biderreko isunarekin zigortuko da.	Urratze larriak (40 art.), E atala: Partida batera inolako arrazoirik gabe agertzen ez den lehen aldia partida horren epaille eskubideen hiru biderreko isunarekin zigortuko da.



<p>Inolako justifikaziorik jasotzen ez bada idatziz astebeteko epean, ez-agertzea izan denetik kontatzen hasita, justifikatu gabetzat hartuko da.</p> <p>Urratze arinak (41. art.): Ohartarazi egingo zaie edo epailletza eskubideen % 25 kenduko zaie hilabete batez.</p> <p>Partida baten emaitza jakinarazten ez bada, 5 euroko zigorra ezarriko da.</p>	<p>Isun horrekin zigortuzat emango dira jardunaldi berean egin diren ez-agertze guztiak. Inolako justifikaziorik jasotzen ez bada idatziz astebeteko epean, ez-agertzea izan denetik kontatzen hasita, justifikatu gabetzat hartuko da.</p> <p>Urratze arinak (41. art.): Ohartarazi egingo zaie edo epailletza eskubideen % 25 kenduko zaie hilabete batez.</p> <p>Partida baten emaitza jakinarazten ez bada, 10 euroko zigorra ezarriko da.</p>
<b>Eguna, ordua edo jokalekua aldatzea</b>	<b>Eguna, ordua edo jokalekua aldatzea</b>
Indarrean dagoen araudia aplikatuko da.	Indarrean dagoen araudia aplikatuko da.
Azken 10 egunetan 10 euro kobratuko dira.	Azken 10 egunetan 30 euro kobratuko dira.
Garaiz kanpo uko egitea: 150 €	Garaiz kanpo uko egitea: 150 €
Izena emateko orrian aldaketak egitea: 5 €	Izena emateko orrian aldaketak egitea: 10 €
Junior kategorian, dokumentazioa epez kanpo entregatzea: 30€	Dokumentazioa epez kanpo entregatzea: 30 €
Arbitraje eskaera 7 egun baino gutxiagoko aurretiaz: 10 €	Arbitraje eskaera 7 egun baino gutxiagoko aurretiaz: 30 €
Epaille lanak behin eta berriz ez ordaintzea: 40 €	Epaille lanak behin eta berriz ez ordaintzea: 40 €

**“Errendimenduan hasteko” MINIBASKET ARAUDIA:**

Espainiako Saskibaloiko Federazioak argitaraturiko arauak aplikatuko dira ondorio guztietarako, eta honako hauek gehituko zaizkie, eta auzirik sortuz gero, hauek izango dute lehentasuna besteen aldean:

**1.-** Talde bakoitzak aktan 8-12 jokalaria artean inskribatu beharko ditu. Talderen bat 8 jokalaria baino gutxiagorekin aurkezten bada eta partida irabazten badu, partida galdutzat emango zaio 20-0 edo 0-20ko emaitzarekin, etxean edo kanpoan jokatzen duen aintzat hartuta.

**2.-** Aktan agertzen diren jokalariek partidak dituen bost zatietatik gutxienez bitan jokatu beharko dute.

Entrenatzaileak jakinarazi beharko dio mahaiari zati bakoitzean zer bost jokalaria hasiko diren jokatzen.

**3.-**Hutsarteak honela emango dira:

- Talde bakoitzak bi hutsarte izango ditu (hiru zati).
- Hutsarte erregistratu bat zati gehigarri bakoitzeko.
- Hutsarte erregistratu ez erabiliak ezingo dira bigarren zatian edo zati gehigarrian eskatu.

**4.-** EZIN DA lehenengo bost zatietan aldaketarik egin, kasu hauetan IZAN EZIK:

- Min harturiko jokalaria aldatu. Min hartu duen jokalaria bost zatietako bakarra jokatu badu, zati gehigarrian joki dezake, baldin eta osatzen bada.
- Kanporaturiko jokalaria ordezkatu.
- 5 falta pertsonal egin dituen jokalaria ordezkatu.

**5.-**Jokalaria bakoitzak gutxienez lehenengo bost zatietatik bi osorik jokatu beharko ditu. Zatia osoa dela ulertzen da hasten denetik, harik eta amaitu arte, kasu hauetan izan ezik:

- Jokalari batek min hartu duelako amaitzen ez badu zati bat, zati hori osorik jokatu balu bezala hartuko da.
- Jokalari batek zati bat amaitzen ez badu kanporatua izan delako, jokatu balu bezala hartuko da, nahiz eta bi zati osorik ez jokatu.
- 5 falta pertsonal egin dituen jokalaria ere jokatu balu bezala hartuko da, nahiz eta bi zati osorik ez jokatu.
- Min harturiko, kanporaturiko edo bost falta eginiko jokalaria den lekuan sartzen den jokalaria ez zaio zati hori osorik jokatu balu bezala kontatuko.

**6.-** Jokalari bakoitza ordezkoen aulkian egon beharko da lehen bost zatietatik gutxienez bitan. Zatia osoa dela ulertzen da hasten denetik, harik eta amaitu arte, non eta taldeak aktan 8 jokalaria besterik apuntatu ez duen; kasu horretan, jokalari batek lehen bost zatietatik lau jokatu ahal izango ditu,

**7.-** Saskiratze bat jasotzen duen taldeak hutsartea eskatzeko eskubidea izango du.

**8.-** Bi jaurtiketa libre egingo dira taldeak 4 falta baino gehiago egiten dituen zati bakoitzean. Hori dela eta, zati bakoitzaren hasieran, taldearen faltak hutsetik kontatuko dira berriro.

Soilik seigarren zatiko faltak izango dira metagarriak, zati gehigarrietarako.

**9.-** Partida bat jokatzean, talde batek besteari markagailuan 50 punturen aldea ateratzen badio, partida amaitutzat emango da, eta une horretan markagailuak erakusten duen emaitza hartuko da kontuan. Partidak jarraitu egingo du, eta handik aurrerako gertakari guztiak aktan jasoko dira, puntuak izan ezik.

**10.-** Partidak bi zati izango ditu, eta zati bakoitzak hiru aldi. Aldi bakoitza 7 minutukoa izango da, lehen sei minutuak erlojua gelditu gabe jokatuko dira eta azken minutua erlojua geldituz. Jaurtiketa libreak bota behar diren faltetan eta hutsarteetan beti geldituko da kronometroa.

Epaleek zainduko dute joko denbora (ezohiko egoerak aldi guztian zehar).

Azken zatian lehenbiziko bost minutuak kronometroa gelditu gabe jokatuko dira, eta azken bi minutuak kronometroa geldituz.

Zati gehigarrietan, lehenbiziko hiru minutuak kronometroa gelditu gabe jokatuko dira, eta azken bi minutuak kronometroa geldituz.

Epaleak ez du baloia ukituko alboko eta hondoko marrako sakeetan, falta, aldaketa edo hutsarte baten ondoren izan ezik.

**11.-** Zonako defentsarik ezingo da egin, eta arauz kontrako defentsatzat hartuko da jokalaria bat 5 segundo baino gehiago eremu murriztuan (zona) egoten bada defentsan ari den jokalaria han egon gabe.

Arauz kontrako defentsa bat jaurtiketa librekin eta baloi jabetzarekin zigortuko da (aktan jasoko da, hartatako prestaturiko lekuan. Falta teknikoa EZ dira metagarriak).

**12.-** 8" segundoen araua aplikatuko da, denbora hori baino lehen igaro beharko da aurkarien zelaira, eta pasibotasun araua ere bai (**Pasibotasun Araua** 24 segundoak markatzen dituen kronometrorik ez dagoen lehiaketa guztietan erabiliko da . Epailleak ikusten duenean baloia duen taldea 24 segundora hurbiltzen ari dela, eskuekin 8 adierazi eta 8tik behera kontaktzen hasiko da, eta kontaktzen amaitu baino lehen jaurti egin beharko litzateke. Jaurtiketarik ez egitea arau urratzea izango da, eta baloia talde aurkariarentzat izango da).

**13.-** Hiru puntuen marra jarriko da; **finalerdietarako, Euskadiko eta Espainiako txapelketetan erabiltzen den marra jarriko da.**

**14.-** Aldien artean, 1 eta 2, 2 eta 3, 4 eta 5, 5 eta 6, minutu bateko atsedena egongo da, eta 3. eta 4. aldien artean bost minutukoa.

**15.-** Baloi ofiziala marka homologatu batekoa izango da.